

## ESKOLA KIROLEKO LOGOAREN LITERATURA



Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio dutela esan ohi da. Hori dela eta, irudi hau aukeratu da, uste baitugu, Oñatiko eskola kirola behar bezala islatzen duela.

Logoa egiterakoan pertsona bat baino gehiago irudikatu dira, zehazki esanda 2. Eskola kirolaren **BALIOAK** ordezkatu nahi ditugu horrela: UNIBERTSALTASUNA, BERDINTASUNEZKOA, INTEGRATZAILEA, ESKURAGARRIA eta abar. Beraz, Oñatin, gazte guztiek izango dute eskola kirolean parte hartzeko aukera, bere sexu, arraza eta ahalmen ekonomikoari erreparatu gabe.

Pertsona bakoitzak bere barnean, elementu bat dauka. Lehenak, baloi bat. Saskibaloia, futbola, eskubaloia, errugbia, areto futbola, boleibola, ... eta gisa honetako beste hainbat kirol ordezkatuz. Bigarrenak berriz, erraketa bat. Agian horren ohikoak ez diren gainontzeko kirolak ordezkatu nahi ditu elementu honek. **KIROL ANIZTASUNARI** egin nahi zaio keinua, eta bide batez, multi-kiroltasuna eta kirol ezberdinak praktikatzeko haurrengan, bai kognitiboki bai motrizitate aldetik, sortzen dituen onurak defendatu.

Elementu hauen presentzia ez da horretara bakarrik mugatzen. Hauen bidez **JOKOA eta JOLASARI** keinu egin eta tresna hezitzaile bezala daukaten garrantzia azpimarratu nahi da.

Amaitzeko, irudiko bi pertsonak kontaktuan izatea ere oso esanguratsua da. Jardunaldi edo partidu bateko hasierako edo amaierako keinua izan daiteke. Indar asko duen keinu bat da, izan ere, honekin eskola kirolaren bitartez transmititu nahi ditugun **BALOREAK** azaleratu nahi ditugu, hala nola, KIROLTASUNA, JOKO GARBIA, TALDE-LANA, LAGUNTASUNA, ERRESPECTUA, AUTO-KONTROLA, eta abar.

EGILEA: Javier Erostarbe